

# 14 ITSASPEKO BIZITZA



## HELBURUA:

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak iraunaraztea eta modu iraunkorrean erabiltzea

**14. GJHren bidez itsasoan dagoen bizitza babestu nahi da, biodibertsitatearen galera ekidinez, itsas baliabideak modu jasangarrian erabiliz garapen jasangarriari begira, horretarako itsasoko jardueraz gain lehorrekoak ere kontutan izanik.**

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Itsas eremu eta kostalde naturalaren balioa
- Itsasoaren kutsadurak, bai itsasoko jarduerengatik sortutakoak baita lehorrekoengatik ere: aisialdia, plastikoak, tratatu gabeko urak, sustantzia kimiko kutsakorrak eta eremu degradatuak
- Babestutako itsas eremuak eta kostaldea eta hauen kudeaketa
- Bainatzeko urak eta hondartzaren kudeaketa
- Herritarrek itsas kutsaduraren gainean sentsibilizatzea

Garapen Jasangarriko **14. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzatza eremu gehien:



## ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

### Zarautzko itsas eremu naturala

Zarautz kostaldean kokatutako udalerrria izanik, bertako **ekosistemek, hala nola hondartzak, estuarioak, duna-sistemak eta itsas labarrak**, batez ere **kultura zerbitzuak** eskaintzen dizkiote udalerrinari, hala nola, aisialdia, hezkuntza, estetikoak... Eremu hauetan, zein udalerriko beste eremuetan (industriaguneak, herrigunea) ematen diren jarduerak ez badira ingurumena errespetatuz eta modu jasangarri batean garatzen, itsasoko eta honekin lotutako eremuetako bizitzan eragina izan dezakete.

Kostaldekoko ekosistema horiek, biodibertsitate eta natura aldetik garrantzitsuak dira:

- Iñurritzako itsasadarraren bokaleko **estuarioa, padura, hondartza eta hareatza** hegazti migratzaileek, batez ere zangaluzeek, atsedean hartzeko erabiltzen dituzte, baita **Mollari punta** ere, kasu honetan Ubarroi eta kaiok erabiltzen dituzte pausaleku gisa.
- **Duna eremuak** garapen maila desberdinak erakusten ditu Zarautzen eta bertan azaltzen dira Euskadin galtzeko arriskuan dauden hainbat landare: Itsas ziabelarra (*Galium*

*arenarium*), Itsas alpaka (*Medicago marina*) edota Itsas alisuma (*Alyssum loisereiurii*) besteak beste.

- Oria aldera eta Getaria aldera hedatzen diren **itsas labarrek**, olatuen zipriztinen eta haizearen eraginpean dagoen inguru batek hartzen dituen baldintza gogorretara egokitutako flora dute. Labar hauek ere hainbat hegaztiren gustuko eremuak dira, eta batzuk habiak ere egiten dituzte, adibidez belatz handiak edota erroiak.

Iñurritza eremuan Uraren Euskal Agentziaren (URA) **lurrazpiko uren kalitate kontrolerako laginketa puntua** dago (SC56). 2015-2020 urteen artean ur hauen **egoera kimikoa ona** da (Euskal Autonomia Erkidegoko lurpeko uren jarraipen programa, 2020). Hala ere, sulfato eta kloruroen eduki altuak erakusten ditu puntu honek, baina Iñurritzaren kasuan jatorri naturalekotzat hartzen dira eta itsasoaren eraginarekin lotzen dira.

Zarautzeko udalak “Zarautz inguruko itsas biodibertsitatea” dibulgazio txostena argitaratu zuen (Tecnalia 2016). Bertan argitaratu denez, **Itsasoko ekosistemari** dagokionez, sakonenaren arabera eta kostara arteko distantziaren arabera eremu desberdinak daude, eta bertan biodibertsitate ugaria aurki daiteke. **Ur zutabeen**, kostaldera hurbiltzen diren arrain asko agertzen dira, aipagarrienak ondorengoak dira: eiherazaina (*Callionymus sp.*), xabiroia (*Echiichthys vipera*, *Trachinus draco*), kabuxinoak (*Pomatoschistus spp.*), lantzoia (*Ammodytes tobianus*) edota platuxa latza (*Platichthys flesus*). **Arroken artean eta marearen mailaren** arabera, izaki bizidunak egokitu egin dira eremu horietako baldintzetara, eta ondorengoak aurki daitezke: alga gorriak (*Lithophyllum incrustans*, *Lithophyllum incrustans*, *Ceramium spp.*), alga arreak (*Halopteris scoparia*), alga berdeak (*Codium adhaerens*), likenak (*Verrucaria maura*), muskuiluak (*Mytilus galloprovincialis*), ostrak (*Ostrea edulis*), lapak (*Patella ulyssiponensis*, *Patella intermedia*), itsas barraskiloak (*Melarhappe neritoides* eta *Phorcus sauciatius*), itsas trikuak (*Paracentrotus lividus*) edota hainbat krustazeo (karramarro ermitaria, karramarro beltza, txangarra, pintzadun izkira, lanperna...).


**Itsasoko egoera ekologiko eta kimikoaren jarraipena** egiteko, Zarautz inguruan URAk bi estazio dauzka (L-010 Zarautzik ekialdera eta L-020 mendebaldera). L-20 estazioak urtero ur masaren egoera orokor ona azaltzen du, baina L-010 estazioak egoera orokorra ona baino txarragoa agertu du azken hiru urteetan. Izan ere urte horietan makroalgen komunitateak aztertu dira eta bertan alga oportunistak asko azaltzen dira. Ur-masa horren presio-iturri nagusiak Zarauzko itsaspeko isurbideak izan dira (L-O10etik gertu).

	L-010	L-020
Makroonogabeak		Oso ona
Fitoplaktona		Oso ona
Makroalgak	Moderatua	Oso ona
Egoera biologikoa	Moderatua	Oso ona
Baldintza orokorrak	Ona	Oso ona
Lehentasunezko sustantziak		Oso ona
Hidromorfologia		Oso ona
<b>Egoera ekologikoa</b>	<b>Moderatua</b>	<b>Oso ona</b>
<b>Egoera kimikoa</b>		<b>Ona</b>
<b>EGOERA OROKORRA</b>	<b>ONA BAINO TXARRAGOA</b>	<b>ONA</b>

*Iturria: EAEko trantsizio eta kostako uren egoera ekologikoaren jarraipen sarea. 2020ko kanpaina. URA*

Pertsonen aisiarako itsasoa ere ezinbestekoa da Zarautz bezalako udalerrri batean. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak neurtu eta kalifikatzen egiten du **bainurako uren kalitatea**, eta udalak sorosleen bitartez hondartzako erabiltzaileei jakinarazten die.

Datuak hiru puntutan hartzen dira (hondartza mendebaldean, erdialdean eta ekialdean). Datuen arabera, azken bost urteetan egin diren langinketa guztietan bainurako uren kalitate oso ona erakutsi dute orokorrean.



Iturria: Zarauzko Udala

## Itsas eremuan eragiten duten faktoreak: itsasokoak bertakoak baita lehorrekoak ere

Nahiz eta gaur egun Zarautz inguruko itsasoak egoera nahiko ona azaltzen duen, kostaldeko urak etengabe hondatzen ari dira kutsaduraren ondorioz, eta honek eragin negatiboa dauka ekosistemen eta biodibertsitatearen funtzionamenduan, baita eskala txikiko arrantzan ere. Gainera, lehorrean burutzen diren jarduerak eragin zuzena dute itsasoko eta honi lotutako bizitzan, kutsadura- eta presio-iturri asko lehorretik bait datoz, izan ere, itsasoko eta kostako kutsaduraren %80a gutxi gorabehera, lurreko eremuan sortzen da. Zarautzen aurki daitezken **kutsadura- eta presio-iturriak** ondorengoak dira:


- Kostaldearekin lotutako **aisialdia** orokorrean: Zarautzen kostaldeko eremuekin lotutako turismo eta aisialdi jardueran ugariak dira, hala nola, hondartza eta malekoia, oinezko ibilbideak eta behatokiak, uretako kirolak, golf-zelaia eta portuko igerilekua. Jarduera hauek presio zuzena eragiten diete bertako habitat, fauna eta florari, izan ere, beren habitataren okupazioa ematen da, zapaldu egiten dira eremuak, zarata sortzen da, hondakinak sortzen dira, bestelako animaliak (txakurrak) paseatzen dira... Eta horrez gain, aisialdi honen ondorioz sortzen diren hondakinak itsasoan bukatzeko arrisku handia dute.
- Lehorretik datozen **hondakinak, batez ere plastikoak**: Herrigunean zein enpresa poligonoetan egiten diren eguneroko jarduerak Zarautzeko erreketan (Igerian, Iñurritza, Abendaiño eta Olaa) dauden sakabanatutako hondakin foku nagusiak dira, eta hondakin hauek erreketaren bidez itsasoan amai dezakete. Mota honetako zaborrak jarduera desberdinek sor dezakete, hala nola, jaiak ospatzea (adibidez Euskal Jaia), botiloioa egitea, taberna eta jatetxeetako terrazen jarduera,... eta bertan sortzen diren hondakinak erreketara edo zuzenean itsasora iritsi daitezke haizeagatik edo euri uren bidez. Gainera, erreketan inguruan baratzak eta utzitako industriagune zaharrak daude batez ere, eta beraz, erreketan agertu daitezkeen (eta bertatik itsasora joan daitezken) zabor gehienak leku hauetatik etortzen dira.
- **Tratatu gabeko hondakin urak**: Itsasora ur zikinak joan daitezke eurite askoko egoeratan. Alde batetik, udalerrian oraindik badaude euri urak eta ur zikinak elkarrekin doazen sektoreak eta euri asko egiten duenean araztegiak ez du beharrezko gaitasunik ur guzti horiek tratatzeko, beraz, tratamenduaren kalitatea jaitsi egiten da eta ur horiek ondoren itsaspeko isurbide bidez itsasora doaz. Eta bestetik, eurite askoko egoeratan, erreketara ur zikinak iritsi eta bertatik zuzenean itsasora joan daitezke.

- **Sustantzia kimiko kutsakorrak:** Errotaberriko saneamendu sarea gaur egun ari da osatzen, behin hau burututa industrialde guztiak egongo dira saneamendu sarera konektatuta. Hala ere, industriaguneetatik batzuetan egiten dira isuriak, urtean 3-4 isurketa gertatzen dira (pintura, gasoila, erregaiak...). Isuri hauen eragileak detektatzeko protokoloak badaude eta espedienteak irekitzen dira URAREN bidez.

Gainera, Zarauzko Golf Zelaiaren eremua **Gipuzkoako Eremu Degradatuen Inbentarioan** barneratuta dago (Gipuzkoako Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentua). Jatorri antropikoko arrazoiak direla medio, bere ingurumen elementuak eta funtzioak galdu dituen eremua da eta beraz, lehengoratzeko, paisaian integratzeko eta egoera ekologikoa hobetzeko ekintzak beharrezkoa ditu txostenaren arabera, hala nola: landaredia inbaditzailea kentzea, zuhaitz autoktonoak landatzea eta itsasertza babestea lurzorua erabilerak arautuz.

### Itsas eremuaren eta kostaldearen kudeaketa eta sentsibilizazioa

Udalaz gaindiko erakundeek Zarautzeko kostaldeko hainbat eremu babestuta dauzkate eta Udalak, **Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren** bidez (ZHAPO), eremua hauek ere bereganatu ditu babes bereziko kategoria moduan, hala nola, estuarioa, padurak, Mollari punta, dunak eta Zarautz eta Aia arteko itsas labarrak, baita Getaria aldekoak ere. Udalerriaren ekialdea **Iñurritzako Biotopoaren baitan eta Natura 2000 Sarearen** parte da eta bere kontserbaziorako neurrien plangintza propioa dauka.



Iturria: Eusko Jurlaritzza / Gobierno Vasco. geoEuskadi.

**Hondartza** izanik diziplina anitzeko tokia eta aisialdirako eremu garrantzitsuenetako bat, udalak honen ingurumen kudeaketa egiten du kutsadurari aurrea hartzeko eta erabiltzaileen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko. **ISO 14001** (nazioarteko araua) eta **EMAS** (Europako Ekokudeaketa eta Ekoauditoriako araua) agiriak eskuratuta ditu (2002an eta 2004an hurrenez hurren), eta hauen bidez hobekuntzak txertatzen ditu kudeaketan, adibidez hondakinen jasoketan eta sentsibilizazioan, uraren eta energiaren kudeaketa eta kontsumoan, biodibertsitatea zaintzan edo zerbitzu eta hornitzaileen ingurumen hobekuntzan. Hondartzaren kudeaketan udalak hartu dituen konpromisoak hauek dira:

- Hondartzako balio naturalak babestea
- Hondartza kalitatezko zerbitzuez hornitzea, beti ere baliabideak modu eraginkorrean erabilia
- Hondartzaren erabilera eta gozamenaren ondorioz gauzatzen diren aktibitateek sortzen duten inpaktua ezagutu, kontrolatu eta posible den neurrian, murrizteko bitarteko eta baliabideak jartzea
- Klima aldaketaren eraginez gerta litezkeen inpaktuak ezagutu, jarraipena egin eta beharrezko neurriak hartzea

Aisialdiarekin lotuta ere Zarauzko **Eratzun Berde Urdina (EBU)** aipatu behar da. Bere helburuen artean dauka zarauztarren inplikazioarekin biodibertsitatearen eta balio handiko natura-guneak

kontserbatzea, horien artean kostaldeko gunek. Honen kudeaketa, mantenua eta jarraipena egiteko pertsona bat dago kontratatuta udalean.

Eraztuna udalerria inguratzen duen 11,7 kilometroko ibilbidea da eta esan bezala hainbat interes gune lotzen ditu, besteak beste, **hondartza, Iñurritzako biotopoa**, Iritako hezeguneak, Tejeriako haltzadia eta Garate-Santa Barbarako hainbat eremu. Eremu hauen babesean herritarren inplikazioa bermatze aldera, bisita gidatuak egiten ditu udalak, eremuetan panel informatiboak ezarrita ditu (batzuk hondakinen jasoketaren ingurukoak, adibidez hondartza sarreretan) eta herritarrei zuzendutako kanpainak ere egiten ditu hainbat jarduera desberdin antolatuz, hala nola, Ingurumenaren Mundu Egunean (ekainaren 5ean), Arkamurka Natur Taldearekin elkarlanean eta herritarrekin batera biotopoko padurako hondakinen jasoketa... Horrez gain, eremu hauei buruzko informazioa guztia jasotzen duen web orri propioa dauka EBUK eta bertan zintzilikatzen dira udalak egiten dituen fauna, flora eta habitatei buruzko azterketak. Gainera, 2022an web gunea eguneratu egin da eta herritarrekin etengabe kontaktuan egoteko tresna izango da aurrerantz.

Zarautzeko Surf Elkarte eta eskolek itsasoko egoerari buruzko kezka adierazten dute eta hainbat ekimen antolatzen dituzte hondartzak garbitu, itsasoa zaintzeko kanpainak edo bestelakoak eginez eta guztia sareetan elkarbanatuz.

Lurreko eremutik etor daitekeen kutsadurari dagokionez, batez ere hondakin plastikoak dira itsasora iristen direnak. Udalak udalerrian egon daitezkeen ekitaldi jendetsuen ondoren **garbiketa zerbitzu bereziak** jartzen ditu martxan, eta horrez gain, zaborrontzi gehiagoz hornitzen da udala, hondakinak ahalik eta azkarren jaso eta erreka edota itsasora joan ez daitezen. Horrez gain, 2016az geroztik eremu laueta **erreka garbitzeko zerbitzu** bat jarri zuen martxan udalak. Zerbitzu honen bidez urtean bi garbiketa egiten dira, bat apirilean eta bestea irailean (euskal jaien ondoren). Zerbitzu honen baitan gainera, 2022tik aurrera, **hezeguneen garbiketa ere barneratu da**, eta erreka gain **Biotopoa eta Irita** hezegunea ere garbitzen dira.



Udala, **plastikorik gabeko herria** kanpaina bultzatzen ari da, herritarrak plastikoaren erabilerak itsasoan duen kalteaz sentsibilizatzeko. Horretarako hainbat ekimen jarri izan dira martxan: **#traolan ekimena**; erakusketa eta informazioa banaketa, hondartza garbiketak, sare egindako poltsen eta poltsa biodegradagarrien banaketa, **“Kantauri Fest” ekitaldia plastikorik gabeko itsasoa nahi dugu** lelopean; moda desfilea, tailerrak, performancea, eta **Itsasoa hemen hasten da, mesedez, ez bota ezer** ekimena, non estolderia ahotan mezu hori jarri den herritarrak sentsibilizatzeko.

## EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Hondartzaren ingurumen kudeaketa:** Hondartza elementu garrantzitsua izanik Zarautzen eta eremu oso bisitatua denez batez ere udan, hondartzaren kutsadurari aurrea hartzeko eta erabiltzaileen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatzeko konpromisoa dauka eta hau ingurumen kudeaketara sistema bidez gauzatzen du, **ISO 14001 eta EMAS** Europako Ekokudeaketa eta Ekoauditoria arauaren arabera.
- **Eraztun Berde Urdina (EBU):** Zarauzko kostaldeko zein lehorreko hainbat interes guñe lotzen dituen eraztuna da, hala nola, hondartza, Iñurritzako biotopoa, Iritako hezeguneak, Tejeriako haltzadia eta Garate-Santa Barbara. Honen helburu nagusia denen artean Zarauzko biodibertsitatea eta natura zaintzea da, horretarako ingurumen heziketa eta sentsibilizazio eginez.
- **Errekak eta hezeguneak garbitzeko udal zerbitzua:** Udalak erreken egoera ikusirik eta hauek itsasoan duten eraginaren jakitun izanik, hauen garbiketa egiteko zerbitzu bat jarri zuen martxan 2016. 2022an zerbitzu hau zabaldu egin da eta Biotopoa eta Irita hezegunea ere barneratu ditu zerbitzuaren baitan.
- **Plastikorik gabeko herria kanpaina:** Kanpaina zabal honen baitan, herritarrek itsasoren kutsaduran sentsibilizatzeko hainbat ekimen burutu dira, hala nola, #traolan, Kantauri Fest eta Itsasoa hemen hasten da ekimenak.



## ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Eremu natural aberatsa dauka (itsasoa, hondartza, mendia...) eta espazio irekia da, horrek aberastasuna, erosotasuna eta kalitatea ematen dio herriari eta herritarrei. Aipatzen da baita ere, postal polit horren atzean arazoak daudela (turismo mota, herri garestia...).
- Nahiz eta eremu natural asko suntsitu diren, Zarautzen oraindik padurak badaudela azpimarratzen da, baina hauen kontserbazioaren inguruko kezka ere agertzen da.
- Golf zelaiaren mantenuak akuiferoan eta itsasoan sor ditzakeen kalteen kezka azaldu da (herbizida, ongarrri, pestizida eta bestelakoen erabilera).
- Itsasoan pertsonen bainurako sailkatuta duten eremua arriskutsua dela aipatzen da, bertan zurrunbiloak baitaude. Itsasoaren eta hondartzaren erabilerarekin gatazkak daudela aipatzen da erabiltzaile desberdinen artean. Hondartza gainera, askotan zikin egoten dela ere aipatzen da.
- Estolderia ahoetatik botatzen diren xaboi eta zaborrak itsasora joaten dira eta honek kezka sortzen du.
- Egiten diren garbiketa kanpainei buruzko komunikazioa indartu beharko litzakeela adierazten da, batzuetan herrian ez omen da kanpaina hauei buruzko ezer entzuten.

## ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, itsas ekosistemen arloan ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Hondartza ISO 14001 eta EMAS ingurumen kudeaketa sistemen arabera kudeatzen jarraitzea.
- Eratzun Berde Urdinaren mantenua egitea eta baliabide hau herritarrekin batera osatzen joatea, horretarako informazioa, azterketak, zaintza, Web orri berriaren kudeaketa, ibilbideen kudeaketa eta mantenua, eta abar eginez.
- Eratzun Berde Urdinaren baitan EBU kluba sortzea ikastetxeekin eta Eskolako 2030 Agendarekin elkarlanean.
- Zarauzko Hirigintza Plan Orokorra berritzerako orduan itsasoko eta honi lotutako espazio naturalen babes mailak aztertzea eta egokitzea.
- Itsasoaren kutsaduraren gaineko sentsibilizazioa egitea sektore desberdinetan.